

ALTXORRAREN BILA

"Altxorraren bila" familiei, lagun taldeei eta publiko orokorrari zuzendutako jarduera da. Parte hartzen duen talde bakoitzak koordinatu batzuk dituen mapa bat jasoko du, Bolueko hezeguneko puntu enblematikoei dagozkienak. Azpiegiturak, eraikinak edo beste elementu batzuk izan daitezke, adierazgarriagoak edo ez hain adierazgarriak.

Koordenatuak Google Maps-en sartuta (Internetarako konexioa duen gailu mugikor bat behar da), GPSak hezeguneko "altxor" bakoitzera eramango gaitu.

Bertan, inguruan dauzkagun elementuak apuntatu beharko ditugu, edo argazkiak atera, koordinatu bakoitza zein elementuri dagokion gogoratzeko; izan ere, jardueraren amaieran (koordinatu guztiak aurkitu direnean), koordinatu bakoitza dagokion elementuarekin erlazionatzeko joko sinple bat proposatuko zaizue.

Beharrezko material guztiak Ingurumen Aretotik bidaliko dira, aldez aurretik izena emanda.